

ttipi ttapa

327


2002ko ekainaren 6a • XXII. urtea



Linuputzu taldearen ehoziri lanak

03

Ehoziri Lan Zaleen lehen topaketa antolatu zuen Leitzan Linuputzu taldeak. Arantxa Grajirenak talde honen eta ehoziri lanen berri eman digu.



Jon Abril lankidea epaituko dute

06

2000.ko abuztuan Madrilgo Entzutegi Nazionalako atarian ttipi-ttapa telebistarendako grabatutako irudi batzuegatik epaituko dute Jon Abril lankidea ekainaren 11n.



**Ehundaka lagun
aerobikaren erritmora**

04

ORDOKI ALTZARIAK

ESTILO UGARIKO MOBLEAK
kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak

LARUNBAT GOIZ ETA ARRATSALDEZ IREKIA



ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 · Tfnoa: 948 63 77 80 · NA - 31780 LESAKA

TTIPI TXARTELarekin

ttipi-ttapa aldizkaria debalde hartuko duzu
eta txartela duten guztien artean
oparien zozketak egingen dira hilabetero

HILABETE HONETAKO SARIA

Amaiurko MENDIALDE Gasnategiak
emandako 2 gasna eder

SARIAREN IRABAZLEA

Aintzane Apeztegia (Ituren)



Jakinazazu

TTIPI TXARTELA

ttipi-ttapa fundazioa
finantziatzeko erreminta ere badela.

Nafarroan euskararen-
dako dirulaguntzak
gero eta murriztagoak
direnean,
jendearen aportazioa
inoiz baino garrantzitsuagoa baita



DATUAK...

- Maiatzaren 19an egin zen Leitzan Ehoziri Lan Zaleen Topaketa, herriko Linuputzu elkarteak antolatua.
- Arantxa Grajirena, sortzez Beintza-Labaiengoa eta leitzara ezkondua, da gaur egun ehoziri (encaje de bolillos) irakaslea. Duela 3 urte elkarteak sortu zuten lagunen artean zegoen.
- 32 lagun ari dira ikastaroan, 24 heldu eta 8 gaztetxo (8 eta 15 urte bitartekoak), astean hiru egunez.



Arantxa GRAJIRENA *Leitzako Linuputzu taldekoa*

MIKEL ILLARREGI

«Ahaide edo etxekoei oparitzeko gauza polita da ehoziri lana»

Aitor AROTZENA

Nola gogoratu zitzaizuen ehoziri lan zaleen elkarteak sortzea Leitzan?

Duela lau urte ikastaro bat egin genuen, Udaletxearen eskutik. Han ikasi nuen nik ere ehoziri lanak egiten. Iruñetik dirulaguntza gehixeago ematen zuten elkarteak osatuz gero... elkarrekin hizketan hasi ginen, Iruñean galdetu eta horrelaxe sortua da, gainerakorik gabe.

Zergatik Linuputzu izena?

Hemen Leitzan, baserri batzuetan linua putzuetan garbitzen omen zuten, lurrean etxe aitzinean zeuden linuputzu izeneko horiek. Izen aproposa iruditzen zitzaigun taldearentzat. **Eta talde horrek arrakasta handia izan du...**

Gaur egun 32 lagun gaude taldean, batzuk gaztetxoak. Denak ez dira beti etortzen, baina gehienak bai.

Gaurko egunean gehiena dendetan erosten da, markakoa ahal bada. Ehoziri lanak badu etorkizunik?

Ehoziria norberak egina da eta indar handiarekin heldu da berriz ere. Ezin

«Ezin duzu enkajea edo puntilla saltzeaz bizi, hasteko ez dakizulako zein prezioetan saldu. Hain da lan zehatza!»

duzu enkajea edo puntilla saltzeaz bizi, hasteko ez dakizulako zein prezioetan saldu. Hain da lan zehatza! Ezin da sartutako ordu guztiak ko-bratu. Zure ahaideei edo etxekoei oparitzeko gauza polita da. Baina norberarentzako ona da, sikologikoki oso ona dela erraten dute. Burua horretan duzula, eguneroko arazoak ahaztu egiten dituzu.

Hemen inguruan lan honetan aritutako norbait topatu duzue?

1800 eta 1900. urteen artean Leitzan egindako ehoziri lanak aurkitu ditugu, baina ez dakigu nork eginak. Ofizio hori aspaldian desagertu zen. Horregatik orain afiziora gehiago jotzen dugu, denbora tartetxoak pasatzera. **Erantzun polita izan du lehen aldiz antolatu duzuen Ehoziri Lan Zaleen Topaketak...**

Zoragarria izan zen. Herrikoak kon-

tatuta 180 bat eskulangile izan genituen, Euskal Herri osotik etorriak. Jende mordoa etorri zen. «Zein gauza polita!» erraten zuten denek. Gainera, hiru sariren zozketa ere egin zen eta saridunek ehoziri lanak eraman dituzte etxera.

Linuputzu taldekoak kanpora ere joaten zarete zuen lanak erakustera?

Bai, bai... horrelako egun bat pasatzera gonbidatzen gaituztenean gu ere apuntatzen gara. Santurtzin, Azpeitian, Zangotzan, Lizarran, Gasteizen... Euskal Herritik kanpo oraindik afizio gehiago dago honelako kon-tuetara: Galizian, Katalunyan, Almagron... afizio izugarria da. Baita estatutik kanpo ere. Eskulanean moda berriz ere bueltatzen ari da.

Lehenbiziko topaketa honen ondotik, bigarrena prestatzeko intentziorik bai?

Gu kanpora atera egingen gara, eta hemen lehenengo urteko bilera egin behar da eta han zer erabakitzen den ikusi. Baina, beno, urtero ez bada bi urtetik behin bederen... arriskua badago. Oso polita izan baita.



AITOR AROTZENA

Berako aerobik taldea, beroketa ariketak egiten, step-arekin hasi baino lehen.

Musikaren erritmoan ehundaka lagun mugitzen dira gure eskualdean aerobik ikastaroetan. Gehienak, ia guziak, emakumeak dira. Gizaseme bakanen bat bertzerik ez da ikusten klaseetan. Lotsa edo bertze kirolekin zaletasun gehiago dagoela izaten ahal da horren aitzakia, baina gizonak ere gustora ikusiko lituzkete irakasleek. Izerdi pixko bat botatzea edo kiloak galtzea izaten dute buruan hasten diren ikasleak, baina denborarekin aerobik-a zerbait gehiago dela konturatzen dira. Lagunartean kirola egiteko modu polita eta sentsazio onak uzten dituen ariketa.

MUSIKA ETA GIMNASIA UZTARTZEN DITUEN KIROLA

Ehundaka emakume mugitzen dira eskualdean aerobikaren erritmoan

Aitor AROTZENA

Leitzan bi talde ari dira aerobikaren eskolako gimnasioan, bat Guraso Elkartek antolatua. Bestean 25-30 bat emakume hasi ziren ikasturte hasieran eta orain gutxiengo ari dira. Aste bitan biltzen dira, astearte eta ostegunetan. Horietako bat da Arantxa Azpiroz. Hirugarren urtea du aerobikegiten. Gustokoa du, «*aste osoan ez dudalako beste ariketarik egiten. Leitzan, ez baduzu futbola edo pilota egiten, ez duzu ariketa fisikoa egiteko beste aukerarik*». Arantxaren ustez, Leitzan kiroldegia irekitzean jende gehiago animatuko da aerobik egitera, «*horretarako gela berezia izanen baita*». Gizasemeak ez animatzearen arrazoiak lotsa dela uste du leitzarrek. «*Behar bada izanen da aerobika gustokoa duen gizonik, baina lotsagatik edo emakume kontua de-*

la uste dutelako ez dira joaten». Inguruko herri gehienetan bezala, irakasleak kanpotik etortzen dira Leitzara, Hernani eta Billabonatik.

Itxaso Olaskaga Hondarribiatik **Doneztebe, Etxalar eta Lesakara** etortzen da aerobik eta gimnasia klaseak ematera. Donezteben hiru talde ditu eta kiroldegian ematen ditu klaseak. Ttikienek (3-7 urtekoak) klase bakarra izaten dute asteazkenetan eta hamar haur biltzen dira. 10 eta 18 urte arteko taldean hameka lagun daude eta asteen bitan aritzen dira, astearte eta ostiraletan. Helduen taldean, azkenik, 25 lagun daude eta asteen hirutan aritzen dira izerdia ateratzen, astearte, asteazken eta ortziraletan. Lesakan gimnasia ematen du gehien bat, berak eskatu zuenerako aerobik ematen zuen bertze irakasle bat ari zelako. 15 lagun ari dira aste-

an bi egunez. Etxalarren ere bi talde ditu. 15-20 urte arteko hamabortz neskek aerobik egiten dute eta talde helduagoa, hogeitabortz emakume, gimnasia ari da.

GIZONEK BERTZE KIROLAK NAHIAGO EDO LOTSA SENTITZEN DUTE?

Beran hirurogeita hamar bat lagunekin lanean ari da Toki Ona kiroldegian Maite Mitxelena irakasle irundarra. Bakarra da gizonezkoa. «*Lotsa kontua da, iruditzen zaie ez dela gizonen kirola eta nahiago dute pailan edo futbolekin aritu*» dio Maitek. Hogeitabortz emakume hiru talde ditu eta astearte eta ortzegunetan ematen die. Ortziraletan hamar bat laguneri ematen die, batzuk ortziraletan bakarrik joaten direnak dira eta bertze batzuk hirugarren saioa nahi dutenak. Dena den, bertze emakume batzuk zerranda

batean daude leku nahikorik ez da goelako, norbaitek noiz utziko duen esperoan. *«Eguneroko buruhausteak alde batera utzi eta, musikaren erritmoarekin izerdia botatzeko modu ezin hobe da»* Maiteren ustez.

Iturenen Kristina Montero arizkundarrak ematen du klasea, astearte eta ortzegun arratsaldetan. Ikasturte hasieran 25-30 laguneko taldea hasi zen eta, harritzekoa bada ere, horietatik 11 dira mutilak. *«Mutilak lotsagatik ez dira joaten –dio Kristinak– baina gero arras ongi pasatzen dute. Iturengo mutilak inoiz hutsegiten ez dutenak dira eta oso pozik nago beraiekin»*. Kristina berak bertze 75 bat lagunerri ematen die klaseak **Elizondon**, astean bitan aritzen diren lau taldetan banatuak (gizaseme bakarra) eta **Erratzun** bertze 15 lagun ditu. Kristinaren ustez, *«telebistak eta komunikabideek hori saltzen dute orain, halako gorputz bat izatea. Eta jendeak gorputza zaindu nahi du, kanpoko aldeari gehiago begiratzen zaio barne aldeari baino. Emakumeek hori barneratua dute, baina herri hauetan gizonek ez diote oraindik halako garrantzirik ematen. Hirietan bai, gehiago nabari da»*. **Legasan** 15 laguneko taldea ari da, Mirentxu irakaslearen erranetara.

Iruñeko Idoia Arruizek hamabosna emakumeko lau talderi klasea eman die **Elizondon** akitu berri duten ikastaroan, astean bi arratsalde bakoitzari. Idoiaren ustez, jendeak arras barneratua du aerobika nesken kirola dela, baina *«mutil bat hasten denean, gero denak segidan etorriko dira. Iruñean ere horrelaxe zen hasieran eta orain mutil asko ari dira eta batzuk monitore arras onak dira»*. Bere erranetan, *«kirola taldean egitea bakarrik egitea baino dibertigarriagoa da, musikak ere laguntzen du eta eguneroko arazoetaz atzentzeko balio die»*.



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA, MIKEL ILARREGI ETA KARMELE TOLOSAS ATERIAK
Doneztebe, Leitza eta Berako aerobik taldeetako kide batzuk ageri dira argazkietan. **Ehundaka lagun, gehienak emakumeak, ari dira astero-astero kirola eta musika uzartzen dituen ariketa hau egiten. Mutil gehien animatu den herria Ituren da, hameka bat gizaseme ari baitira. «Behin hasiz gero, inoiz hutsegiten ez dutenak dira» diote irakasleek.**



Itxaso OLASKOAGA Aerobik irakaslea

“Eguraldi ona hasten denean jende gutxiago etortzen da klasera”

Zergatik ez dute gizasemek parte hartzen aerobik ikastaroetan?

Niri gizonak etortzea gustatuko litzaidake, baina ez da etortzen. Nahiago dute pilotan edo futbolekin aritu edo korrika egin, dantzan aritzea baino. Irun aldean ohitura handiagoa dute.

Uda aldera emakume gehi-

go etortzen al da, kiloak kentzeko intentzioarekin?

Hemen alderantziz gertatzen da. Barraskiloak bezala, eguraldi ona hasten denean jende gutxiago etortzen da, kanpora ateratzea nahiago dutelako. Gogoekin hasten dira, baina udaberri aldera utzi egiten dute askok, baina heldu den urrian berriz hasteko.

Zein da aerobikaren arrakastaren arrazoia?

Gorputza mugitzeak eta izerdia botatzeak sentsazio onak uzten dizkizu. Klaseak harremanak egiteko ere onak dira, lagunarteko giroa sortzen da. Barrenetik gaizki sentitzen bazara, aerobik egin ondoren beste alaitasun bat daukazu.



Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarteak...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

• KOLABORAZIOAK •

Jon Abril lankideari epaiketa ekainaren 11n



Errugabeak ez du deus frogatu beharrik eta Jonen errugabetasunaren oihartzuna airez aire hedatuko du Berako Kultur Batzordeak

Joxelu BERSATEGI Berako Kultur Batzordekoa

Labur, labur. Sei segundutan, kasi. 2000 karakterretan gai honi buruzko nere iritzia pertsonala eman behar omen dut. Eta hala izanik, ez naiz galduko ba zentzugabekeria hutsa den istorio honetan. Zentzugabekeriak, hitzak erraten duen bezalaxe, ez baitu inolako zentzurik. Eta zentzugabekeriaren inguruan bueltak eta bueltak emateak ez baigaitu urrun eramane: aunitzetan, aldiz, ezinegonak, errabiak, eraso nahiak eta gorrotoen suminak haizatzen bertzerik ez. Eta horretaz, egia erran, aseena naiz. Lehenxeago edo beranduxeago, gorroto gupil honetatik atera beharko dugu. Beldurra alder batera utzi eta mundu paranoiko honetatik atera, ez badugu arrantian erotu nahi, bederen.

Beraz, ez dezagun gure energia zentzugabekeria honetan gal, ez du merezi eta. Gorde eta erabili dezagun gure energia osoa nahi ditugun gauzetarako, sortzeko, eraikitzeko, elkarbizitzeko, maitatzeko, sendatzeko, gure bizitza eta gure bizitzarekiko begirada berritzeko...

Eta orain, eta hemen, egoera honen aurrean, zer egin, edo zer ez egin?... Gure esku dago.

Berako kultur batzordea, sentsibilitate desberdineko jendeak eta elkarteak biltzen dituen batzordea, lanean darrai, eta lanean jarraituko du errugabea den pertsona bati elkartasuna adierazteko. Kultur taldeen elkar-energi guztiak kasu honetan Jonen errugabetasunaren alde jarri. Aski ezaguna den Jon Abrilen alde. Tinko eta aldi berean maitasunez lan egingen dugu. Irudimenarekin sortuz. Eskura ditugun baliabideak erabiliz. Gustuko ditugun ekintzen bidez: dantza, antzerkia, bertsoak, musika eta kantuak... Eta hau guztia zertarako? Kontuz, argi geldi dadila: Errugabeak ez du deus frogatu beharrik. Deus. Beraz, gure ekintzak momentu latz honetan Jonen batera ibiltzeko gogoeetatik datoz, ibiltzen segitzeko elkarrekin, eta ibilbide honetan bere errugabetasunaren oihartzuna airez aire hedatzeko, oztopo guztien gainetik. (BKBtik ekainaren 9an Beran egingen den jaialdian parte hartzen ongiatorriak zarete). Ez dakit honek guztiak zerbait aldatuko duen, baina jakin ezazu Jon, ZUREKIN BAT gaudela eta egonen garela, zure ERRUGABETASUNAREKIN BAT.



Kazetari lan independente eta kritikoa mututzeko ahalegina da

Xorroxin Irratiko lan taldea

Jon Abrilen epaiketa Entzutegi Nazionalaren eraldi erreprentiboaren zartako berria bertzerik ez da, Egin Irratia eta egunkariaren herstea bezala, edo Gara eta Egunkariako zuzendarien auzipetzea bezala. Estatuaren diskurtsoa birsortzen duten hedabideen hegemoniaren aitzinean iritzi independente eta kritikoa ahalbidera dezakeen kazetari lana mututzeko eginahala da eta hortaz, adierazpen askatasunaren eta informazio eskubidearen kontrako eraso larria. Azken batean demokrazi sistemaren ukapena da, oinarrian dagoen iritzi aniztasunerako aukera oro ezabatzen baita. Nola ulertzen ahal da berterez, telebista kate handiek bota zituzten irudi berberak grabatzeagatik Jon Abril epaitzea? Ez ote da izan espainiar «demokraziak» ez duela algodoiaren frogasatu eta bere diskurtsoa kuestionatzen duen oro *Tribunal de Orden Público*tik pasatzea bertzerik ez zaiola gelditzen? Ezagunegiak jarrera totalitario hauek, ez da hala? Akitzeko, lerro hauek Jon Abrili, Xorroxin irrati lankideari elkartasun eta sostengua osoa erakusteko baliatu nahiko genituzke.



Bera osoa mugitzen ari da, baina zoritxarrez horrek ez du epaileengan eragingo

Txaro ZUBIETA Berako zinegotzia

Sei segunduko grabaketa batengatik sei urteko espetxe zigorra ezarri ahal izatea zentzugabea iruditzen zait, hasieratik zentzugabea izan da eta orain ere absurdoa da. Zer balorazio egiten ahal da horretaz? Hor ikusten da nola funtzionatzen duen justiziak hemen. Beran mobilizazio ugari egiten ari gara Jontxitoren alde, baina, zoritxarrez, haiengan eragina izateko baino gehiago, berari elkartasuna adierazteko bertzerik ez dutela balioko iruditzen zait. Gauzak ailegatu diren lekuraino eramateko, ez dut us-te herriak zer pentsatzen duen sobera inportakozaienik. Azken finean, denok dakigu Jonen zer lan egin duen hemen kulturaren eta euskararen alde. Hori dena kriminalizatzen ari dira orain eta heldu den asteko epaiketa bertze pausu bat da. Jonen herri honetan egiten duen lana izugarria. Kultur talde denak koordinatzen ditu, harreman ona du denekin eta hori ez da batere errega. Kulturari dagokion guztia bere eskuetan gelditzen da, eta beti dago laguntzeko prest, borondate ikaragarria du. Horregatik sortu da herrian honelako mugimendua.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Berako Pui Ostatuko «bezero»ek eskutitza siñatu dutenei

Gure artean ere Pui ostatuko bezeroak ba dira, eta gurekin behinpen ez duzue kontatu, eskutitza hora siñatzeko.

Inongoizenik agertzea publikoan, eskutitz horri ematen diozue "anonimo" batek daukan garrantzikeria... kaxkarkeria...

Dena dela, jakin behar duzue, Udal honek iñoizez paratu dio Pui ostatuari ezta denuntzia bat bakarra, Udalak bakarrik tramitatu ditu ailegatzeko zitzaizkion denuntziak, eta azken aldiz, jabeekin adostu eta, multa minimo bat paratu zion.

Udalatik, Pui ostatuko jabeek, zer jarrera dauka Nafar Gobernuak eta zer emaitzak etor zitzaiokeela, abisatu zien.

Udal honek baimena ostatu guztiei, edozein aitzakia paratzen, luzatzeko ixteko ordutegia egun batzuetan eman dizkio (Berako eta Altxateko bestetan, Lurraren Egunan bezperan, Ihauterietan, Gabonetan eta Urte Zaharrean, eta ekitaldi kultural puntual batzuekin).

Gu ez gara sartzen lege horren egokitasunarekin. (Neguan 2'30 eta udan 3tan ixtekoz), baina ostatuek badute beure sindikatua, beure interesak defenditzeko, eta ostatuetan agertzen diren kartelak ordutegiekin, ez dute eramaten Udalaren logotipoa, baizik beure sindikatukoena.

Udalaren langileek beara lana egiten dute, hainitz flexibilitateekin gainera, eta kasu honetan,

Nafar Gobernuak eskatu ondoren, Pui ostatuko fatxadaren argazki bat atera zuten.

Gure langileak (Herriko langileak) sartzea zaku berdin batean bertze erakundeko jendeekin, xingarra eta abiadura nahastea bezala da, eta "insulto" hori ez dugu onartzen.

Baldin ba duzue ke-xaren baten bat, badakizue prest gaudela entzuteko eta, behar ba da, zuzentzeko okertzen bagara. Bainan ez kritikatu ez dugu eginga, eta mesedez hurrengoan aurpegia eman behar den bezala.

Josu GOIA
Berako zinegotzi guztien izenean.

Txan magoa, arduragabea...

Txan Txan Txan Txan...Txan magoa ez da agertu ! Hezkuntzako Euskara Zerbitzuak antolaturik Malerrekako eskolek maiatzaren 29rako Txan magoaren bisita eta emanaldia espero genuen. Hala ere, hasieran aipatu dugun bezala, plazan umeak, gurasoak, irakasleak,... esperoan .Inguruko Eratsun, Saldias, Beintza-Labaien eta Iturengo herrietatik eskoletako haur guztiak propio bere saioa ikusteko ekarraziaz . Eta hara non, kasualitatearen magiaz ikasten dugun Jauntzaraseko eskolan emanaldia egun eta ordu beurean duela. Berarekin zuzenean solastu ondoren argi eta garbi adierazten diogu, eskaera maiatza-

ren 30rako eskatua genuela baina berak deitu zigula egun horretan grabaketa zuela esanez eta aktuzio eguna aldatzea eskatu zigula. Guk inolako arazorik gabe baietza eman genion hile honen 29rako. Berak dena ukatzen du. Hala ere gogorazten diogu ondoren, beste hiru irakasleekin hitz egin zuela, baita egunaz nahastu zelako (apirilaren 29an uste baitzuen), eta abar, eta abar, eta abar. Kontua da Herri txikitako ikasle guztien ilusio faltsuak sortarazi ditugula "engainatuak" sentitzen gara eta bera gainera ez da arduradun egiten. Azkenik esan, ez dela lehen aldiz, duela hiruzpalau urte gauza bera egin baitzuen, toki eta "kliente" berekin eta inolako damurik gabe. Hau da hau! Orain, berari zein irtenbide eman behar digun esatea tokatzen zaio...

Itturen, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaingo eskoletako irakasleak

Ekainaren 11n

Ekainaren 11n, JUSTIZIAren dorre bikiak erortzeko arrisku bizian izan litezke, burrunba eta zalaparta handirik gabe. Ez dugu ametituko.

Ekainaren 11n, KULTURAREN kontrako atentatua egingen dute zenbaitzuek. Herri txiki honen kulturaren alde ari diren lagunak ez dituzte maitate.

Ekainaren 11n, ASKATASUNA juzkatu gogo dute, bertze alde batetik, askatasun pertsonalen aldeko eskubideak ziurtatzeko hitzarmenak sinatzen dituzten bitartean.

Ekainaren 11n, JON ABRIL beratarra bertze BIKTIMA bat izanen da, borrororen papera eman nahi baldin badiote ere. Hala ere, ez dute erdie-tsiko.

Ekainaren 11n, bertze gauza aunitz ere suertatuko dira hemen eta han. Zorritarrez, ezagunak diren nahiz ez diren bertze injustizia mordoxka bat ere izanen dira egun horretan. Baina, bakoitzak berea eta denok denona leloan sinesten duguentzat ekainaren 11 egun makurra izanen da zero eremuan.

Behin ere erran nian, Jontxu: kontu goiari, eta JUSTIZIAk justiziaren orde berea egin dezala. Hi kargurik gabe utziko haute, baina euren sistema agerian gelditu izanen duk.

Edu ZELAIETA
(Gasteiz).

Berako Euskara Batzordeak Berako udalbatzarrari

Jon Abril Olaetxea 2002ko ekainean 11n epaituko dutela jakin dugu. Era berean, Berako Kultur Batzordeak Udalbatzarrari aurkeztu dion mozia-riaren berri izan dugu.

Horrela, azpian sinatzen dugunok Berako Euskara Batzordearen izenean Berako Udalbatzarrari jakinarazi nahi dugu:

1. Jon Abril Olaetxearen epaiketa dela eta Berako Kultur Batzordeko taldeek aurkeztutako mozioarekin bat gatoze-la.

2. Jon Abril Olaetxea Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Berako Euskara Batzordeko kidea eta Aholkularitza Batzordeko kidea den aldetik lan eskerga egiten ari dela gure herrian eta eskualdean euskararen normalizazioaren alde.

3. Jon Abril Olaetxearen kontrako auzia erabat zentzugabea dela eta guztiz arbuia garria dela.

Beran, 2002ko maiatzaren 28an
Berako Euskara Batzordea.

Ez digute isilduko!

Aupa denok eta bereziki Jon!! Gure animoa ta sustengoa emannahi diogu Eztanda taldearen partez, baita Kristian Amoren partez. Ez digute isilduko!. Laster arte.

Kristian AMORENA
(Eztanda taldea)

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Noticias 02-05-20

«Ongi prestatu gabe bazaude irabazten ahal duzu partidu oso zail bat, baina errexena ere galtzen ahal duzu. Hankek dardar egiten dizute eta dena gainera heldu zaizula iruditzen zaizu».

«Apostua dagoen lekuan jendeak zalantzak izaten ditu. Kantxa barrenean ez zara gehiegi enteratzen. Jendeak nirekin dirua irabaztea gustatzen zait, baina, beti ere nik partidua irabazi baldin badut, noski».

Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria
D. Noticias 02-05-20

«Ongi zaudela baldin badakizu kantxara beldurrik gabe ateratzen zara. Irabazi behar baldin banau, irabaz dezala, baina partiduaren ordua ailegatzeko gogoekin zaude».

«Lehen mailan jokatu nuen lehendabiziko urtean Beristainen kontra galdu nuen, favorito argia nintzen partida batean. Bigarren koadrotik kontrakantxara pilota mordoxka bota nuen. Bi egunez etxetik atera gabe egon nintzen, lotsatua».

Juan Mari Bengoetxea
Leitzako pilotari ohia
D. Noticias 02-05-20

• 11 GALDERA LABUR •

**Jean-Marc IRATZOKI** Azkaingo kantuzalea eta AEKKo ikaslea

Zein da zuretzat kanturik ederrena?

Benito Lertxundik abesten duen Bal-dorba.

Kantari bat?

Andde Duhalde.

Zonbat kantu ezagutzen dituzu go-goz?

oh, ez ainitz, hamar bat osoki...

Zoin da gehienik kantatu duzun kantua bizian?

Dudarik gabe Hegoak, errubiarekin aste guziz kantatzen genuen.

Plazer gehiago hartzen duzu kantatzen edo kantuen entzuten?

Nahiago dut kantari on bat entzun.

Euskara ikasten duzu, mintzatzeko edo kantuen ulertzeko?

Biak. Lehenik nere hurrekin eskua-raz mintzatu ahal izateko, ondotik kantuen ulertzeko.

Zer da zailena euskara ikasteen zuretzat?

Hiztegia errexka da baina deklinabi-deak biziki zailak dira.

Paella onak egiten dituzu afari haundietan, etxean ere zu zara sukaldari?

Gehienetan ez.

Dutxa azpian kantatzen duzu?

Ez.

Bertze nunbait?

Bai, autoan, Martintxoren kazetarekin.

Euskara ongi menperatzeko gauza ainitzen egiteko prest zara?

Ikastaldiak gogotik eginen nituzke baina familiarengatik ez dut posible.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENTZIA

■ Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

■ Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

■ Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

■ Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

■ Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tfnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

ERREKALDE
ostalua

Tfnoa: 948630259 - BERA

© 948631076 • BERA

ERROTAZAR

Harategia

Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

Ioredenda

Albistur, 39-K
627542
LESAKA

• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

LANA

Karlos Pombar: Bere gisara sukaldeak montatzen hasi den beratarra

Irungo Bidasoa Institutuak bultzatutako Urratsbat proiektuaren bidez

tipi-ttapa

Karlos Pombar Sainz beratarrak Zurgintza eta moblegintza ikasi zuen Irungo Bidasoa Lanbide Heziketa Institutuan. Gaur egun, 21 urterekin, gazte saiatua da, autonomo gisara ari dena berak ikasitako arloan, hau da, sukaldeen muntaia eta instalazioa.

Esperientzia hau, Irungo Bidasoa Institutuak eta Zumaiako Muebles Xey S.L. enpresaren elkarlan akordio baten ondorioz hasi zen.

Urratsbat izeneko proiektuaren bidez, Zurgintza ikasketak akautzeko zituzten zazpi ikaslek sukaldeak montatzeko enpresa sortu zuten. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Hezikuntza Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lan Sailaren eta ikastetxe beraren laguntza izan zuten. Itzuli behar ez zen dirulaguntza jasozuten, Enpresaren Bideragarritasun estu-

dioa egin zitzaizen eta proiektuaren planifikazioan, garapenean eta sendotzean lagundu zitzaizen. Karlos Pombarrek erran digunez, «*hasieran inbertsio handi xamarra egin behar zen tresneria erosteko, 350.000 pezeta inguru eta horretan ikastetxeak lagundu zigun*». Hiru hilabeteko ikastaroaren ondotik, produkzioan hasi ziren. «*Guretzako erronka handia zen, aipatutako laguntzaz gain, bertze gauza aunitz baikenituen alde: lanpostua segurtatua genuen, ikasteko aukera eta kurrikuluma borobiltzeko modua, behin behineko eta gutti ordaindutako lanari alternatiba eta orokorrean, sektore honetan izan diren diru-sarreraren bidez nazbertzekotik goiti kobratzea*».

Lan talde hau Muebles Xey enpresari Espainiako Iparaldean zerbitzua emateko as-

Karlos Pombar, berak jartzen duen sukalde batekin.

moarekin sortu zuen Baina gero, Madril, Bartzelonan, Teruelen, Hueskan eta bertze zenbait lekutan sukaldeak montatzeko deitu zituzt

BERE GISARA LAN

Urratsbat proiektuaren barnean sortutako enpresa horretan urtebetez lan egin ondotik, esperientzia hori bere gisara sukaldeak montatzen hasteko aprobetxatu zuen Karlos Pombarrek, duela urte erdi. «*Talde bat utzi eta nire gisara hasteko arrazoia inguru hurbilago batean lanean hastea izan zen, bezerearekin haren estuagotzat ematen duen*

tua hotzagotzat zen, obra berria egindako lanak izaten baitziren gehienetan». Gaur egun kontent dago bere lanarekin eta etorkizunerako itxaropen handiak ditu. «*Lana bere osotasunean kudeatzea gustatuko litzaidake, hau da, hiru dimentsioetan diseinatu, aurrekontuak egin eta sukaldea montatu, hori bai, Xey-en bantzaileekin gaur egun*

egiten dudana lana alde batera utzi gabe».

Horretarako, lana egitearekin batera, bere ikasketak gaurkotzen segitu du eta Bidasoa Institutuan sukalde eta mobleen diseinuari buruzko ikastaroak egin ditu. «*Beti gustatu zaidan lan horretan aitzinera egiteko gaitasuna ematen dit horrek*».



ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneratik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziralean, 8etatik 15etara
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

- ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713
- Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735 - 607 406781



BERA

Ekainaren 11n epaituko dute Jon Abril Audientzia Nazionalean


Ekainaren 9an eskualde guziko jendearen elkartasuna izanen du

Asier GOGORTZA

Orain bi urteko abuztuaren 10 segunduko bideo-grabaketa bat egi-teagatik epaituko dute heldu den asteartean Jon Abril beratarra. Bere abokatuak jarritako helegite guziak atzera bota dituzte Audientzia Nazionaleko epaileek, baita defentsak epaiketarako aukeratutako lekuko gehienak ere.

Honenbertzez, Abri-lek 6 urteko gartzela zigorrari, 6 urteko inhabilitazioari eta 1.200 euroko isun bati egin beharko die aurre, hoie-xek baitira fiskalak eskatutako zigorrak.

Epaiketaren aitzine-tik elkartasun mezu uga-ri jasotzen ari da Jon Abril, eta ekainaren 9an Kultur Batzordeko talde



ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA

Bertze elkartasun moduen artean “Eman begi bat Jonen alde” ekimena abiatu du Ertz kolektiboak. Ertz jaialdian hasita Jonekin bat egin nahi duten pertsona guzien begiak bilduko dira fotomatoi baten bidez. Irudian agertzen denaren gisako argazkiak erakusketa moduan antolatuko dira ondotik.

guzien artean elkartasun eguna antolatu dute eskualdeko eta kanpoko jendeari begira. Elkartasuna adierazteaz

gain epaiketaren gastu guzietarako dirua biltzea ere sartzen da helburuen artean. Herriko musikari, dantzari eta ber-

tsolariez gain, Petti, Morau, Joseba Irazoki eta Xabier Montoia kantari-ek ere hartuko dute parte.

FLASH

Akautu da futbol denboraldia

Dagoeneko akitu dute denboraldia herriko futbol talde guziek. Dene-tarik izan da aurten. Erregionaleko taldeak mailari eutsi dio 13. bukatuz, eta aipatu behar da zenbait jokalaria “historikok” adio erranen diotela taldeari. Azken partiduan Jon Abril izan zuten gogoan jokalaria eta zaletuek. Jubenilen taldeak denboraldi po-lita osatu du seigarren tokian akautuz. Kade-teek, berriz, maila gal-du dute. Neskak ederki aritu dira, maila man-tenduz eta Kontxako ko-pa irabaziz. Areto fut-boleak, azkenik, azken aurreko postuan buka-tu dute, baina oraindik ez dakite segurutik maila galduko duten edo ez.

Sormen ikastaroa

Ekainaren 7,8 eta 9an Chrissie Poulter irlan-darrak sormen proze-suaren inguruko ikasta-roa emanen du Beran. Norberaren esku dau-den baliabideak erabili-ko dira horretarako, gu-re gorputza, mugimen-dua, ahotsa... baina bai-ta Berako inguruneak eskaintzen dizkigunak ere.

Altzateko bestak

ekainaren 14tik 16ra ospatuko dira. Ortziralean pilota goxo besta, larunbatean txirrindula txapelketa, gimkana eta bertso-poteoa eta igande-ean parapente era-kustaldia izanen da, ohi-ko ekitaldiekin batera.

ERTZ JAIALDIA

Ekainaren 6tik 9ra ospatuko da hirugarren Ertz jaialdia

Ortzegun honetatik igandea bitarte Euskal Herriko eta kanpo-ko hainbat artisten musika eta bideo lanak aditu eta ikusi ahal izanen dira Berako Kultur Etxean. Ertz arte guneak antolatzen duen jaialdi hau ari da pixkan-pixkan

bere tokia hartzen, bai Euskal Herrian, baita nazioartean ere.

Aurten bideogintza esperi-mentalari eskaini diote jaialdia-ren lehendabiziko eguna, eta ortziraletik igandera hainbat musi-kariren proposamenak emanen dira ezagutzera. Akauzazte, Alex

Mendizabal, Tzesne eta Ixi Soft-ware euskaldunez gain bertzeak bertze Italiatik, Australiatik eta Alemaniatic etorritako artistek parte hartuko dute aurten. Tartean, harritzeko moduko aktuazioak izanen dira oraingoan ere, Curva Chiusa taldeak bizikleta gainean eskainiko duen kontzertua errate batera.

belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista
Legia I, behea • BERA • © 948 630652

bortzirUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENQUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA • EMAILA
SKANNERIA
PAPERTUTIA
DISEÑO GRAFICO
IMPRESION LANAK
SERIGRAFIA
FOTOTUTIAK
PUBLIKITATIA
Argazki Muntaiak
Estegara 25 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

© 948 63 1462
Altzate I • BERA
Xirail

LESKA

2.648.000 euro pasatuko aurrekontua izanen du Udalak

Inbertsiorik handiena igerilekuak estaltzeko egingen da aurten

Aitor AROTZENA

Lesakako Herriko Etxeak 2.648.023,42 euroko udal aurrekontua izanen du aurten. Modu berean, Andra Mari Zahar-Etxea Erakunde Autonomoaren aurrekontua, 341.976 eurokoa, onartu zen. Bi aurrekontu hauek EAJ-EAren aldeko botuekin eta Batasunako kontrakoe-kin onartu ziren. Aitzineko urteetan bezalaxe, Batasuna kexu ageri zen, aste beteko epeaz bidali zaielako aurrekontua eta hameka zinegotzietatik lauren iritzia ez delakoz kontutan hartu. Batasunaren ustez, hori larria da eta horrekin batera Lesakako sektore haundi bat zokoratzen da. Bertze salaketa batzuk ere egin zituen Batasunak, adibidez planifikazio eza. Beraien erranetan, babes ofizialeko etxeak egiteko ez dago partidarik, ezta mendi planifikazio egoki bat egiteko ere ez. Herritarren artean bereizkuntzak egiten direla eta euskararen inguruan utzikeria handia dagoela adierazi zuten Batasunki-deek.

Alkateak bere alde-
tik, aurrekontuak hobe-



ARGAZKIAK: LEIRE PORTUK UTZIAK

Larunbat honetan egingen da matxinbeltzeneare 10. urteurren besta eguna. Arratsaldeko triki-poteoaren ondotik afaria egingen da Kattu jatetxean eta gero kontzertua Tapia eta Leturiarekin.

tzeko azken 5-6 urtetan Batasunak borondaterik ez duela izan adierazi zuen, beraien iritzien aurkezpena beraien burua luzitzeko bertzerik ez dela erranez. Batasunaren solasetan aurrekontuekin zerikusirik ez zuten solas aunitz bazirela ere erran zuen Jose Luis Etxegaraik. Batasunak ordezkaritaren eta alkatearen arteko eztabaidak luze jo zuen, baina azkenean, erran bezala, Herriko Etxeko eta Andra Mari Zahar Etxe-

ko aurrekontuak EAJ-EAren botuekin onartu ziren.

300.506 EURO

IGERILEKUA ESTALTZEKO

Aurten egingen diren inbertsio guzrien artean garestiena eta aipagarriena, udal igerilekuen estaltzea izanen litza-teke, 300.506 euroko aurrekontuarekin, hau da, 50 milioi pezeta inguru. Udalak eliza bidean tanatorio bat eraikiko du. Lurrak erosteko 75.000 euro erabiliko dira eta tanatorioa

egiteko 210.354 euro. Mendi lanetarako 168.284 euro zuzenduko dira eta Irain eskola-ko obrak egiteko 27.045 euro. Kultur Etxearen proiektuaren bigarren faserako 120.202 euro gastatuko dira. Zaharren egoitzan arkupe bat egiteko obrek 22.000 euroko aurrekontua izanen dute. Ikastolaren kanpoko aldean obra egiteko 12.000 euro gastatuko dira eta Herriko Etxekoan artxibo tiki bat osatzeko 6.000 euro erabiliko dira.

FLASH

Lesakako VI. Mendi Itzulia

Ekainaren 16an egingen da Beti Gazte elkarteak seigarren urtez antolatutako Mendi Itzulia. Beti bezala, bi ibilbide izanen dira aukeran. Luzeena, 34 km.koa: plaza Zaharrean abiatu eta Unanua, Itsaszelaieta, Pagolleta, Elutxa, Bianditz, Aritxulegi, Aiako Harriak, Endarako erreka, Gartzineko Borda eta Banarta igaroko dituzte, plazara bueltatu aitzin. Laburrenean (30 km.) ez dute Aiako Harria igoko. Izen ematea 6:45etatik 7:30etara beteko da plazan eta 5 euro gostako da (4 euro bazkideentzat). Irteerak 7:00ak eta 7:30ak artean egingen dira.

Jone Fagoaga

Skeet Olinpikoan Presidentearen Kopa irabazi zuen herriko tiralaria maiatzaren 18 eta 19an Valladolid-en eta Europako txapelketan parte hartu du maiatzaren 24tik 30era Lonaton (Italia).

Musika bandaren omenaldia

Musika Bandak omenaldia eskaini zien ekainaren 1ean bandakide beteranoei. Herriko musika talde ezberdinek emanaldia eskaini zuten Plaza Zaharrean.

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESKA

kixkur
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESKA

IRU BIDE
ERRATEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESKA

ANIA
Janari dena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESKA

XATURETXEA
3441
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESKA

ETXALAR

Hurrengo igandean, ekainak 16, ospatuko da XV. Haurren Eguna

Herriko karrika nagusiak zolaberritzen ari dira dagoeneko

Joseba eta Nerea

Ekainaren 16an, igandea, herriko haurrek beraien eguna ospatuko dute. Aurtengoa XV. edizioa izanen da eta egun guziko egitaraua ekintzez betea dator. Goiz osoan frontoian Landagain eskolako haurrek eginiko eskulanen erakusketa izanen da ikusgai, urte guzian egindako bertze hainbat lanekin batera. Eguerdi partean XV. ipuin topaketa egingen da, bertan aukeratutako ikasle batzuk beraien ipuinak irakurriko dituzte bertaratzen direnen aintzinean. Ondotik bazkaria izanen dute frontoian eta eguna akabatzeke arratsaldeko bortzetan "Sambhu" antzerki taldearen emanaldia izanen da. Egun guzian herriko trikitilariak alaituko dute plaza ingurua.

Herriko karriken zolaberritzea

"Excavaciones y transportes Orsa S.L."



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Aurtengo Haurren Egunean ere antzerkia ikusgai izanen da.

Irungo enpresak hartu ditu bere gain herriko karriken zolaberritze lanak 139.796,91 eurotako aurrekontuarekin (23.260.249 pezeta). Obrak hasi eta lau egunetara gelditu egin ziren, zenbait arazoren gatik. Hala ere, ahal bezain agudo segituko dute lanarekin eta zolaberrituko diren bideak Antsolokueta auzokoa, Landaburutik Haritzpe ostatuaren ondoraino-

koa eta plazatik Arrigairaraino doana izanen dira. Hauek 5 zentimetroko brea beltzez moldatuko dituzte. Aldiz, mediku kontsultaren pareko bidea, Kultur Etxea eta Arburuaren ondokoa eta panaderitik gurutzeraino doana 6 zentimetroko brea gorritz berrituko dira. Bertzetik, Landaburutik Arroseraino doan bidea ez da berritua izanen ez baita udalaren eskumena.

Patxiku Irisarri zinegotziak aipatu digunez «herriko zenbait karreteratan brea gorria ematearen arrazoia kanpotarrak bide horietan barrera galduta ez ibiltzea da eta horrela bide nagusietatik (brea beltze koetatik) desberdintzea». Iñarretako gurutzeraren inguruan ere adokin itxurako plaza bat egingen dute, oraindik xehetasunak zehaztu ga-beak badituzte ere.

FLASH

Udal langile berriak

Urtero bezala Udalak langabetuak kontratatu ditu. Horretarako Nafarroako Gobernuak 15.051,12 euroko dirulaguntza eman du hiru langile kontratatzeke bortz hilabetez bakoitza. Jose Luis Agesta, Jose Luis Irisarri eta Jabier Galarregi izan dira aukeratuak. Hauetaz gain, Irene Zelaieta babes-tutako enplegu sozialeko programan kontratatuko da.

Ikasleen kanpaldiak

Kurtso bukaera hurbiltzen ari dela eta, Landagain eskolako haurrek kanpaldiak izan dituzte. Aurtun lehenbiziko eta bigarren ziklokoak Hondarribira joan ziren maiatzaren 15, 16 eta 17an. Haur Hezkuntzakoak berriz Zarautz ezagutzeke aukera izan zuten maiatzaren 23 eta 24ean. Mari Jose Gamio eskolako zuzendaria adierazi digunez «kanpaldi hauekin haurren arteko harremanak sendotu nahi dira, lagun berriak egitea eta ongi pasatzea. Dena pentsatu bezala joan da eta ez dugu inolako arazorik izan». Etxalarkoekin batera Bortzirietako bertze ikastetxetakoak ere joan ziren.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

LEGARRA

Prentsa	Fax publikoa
Liburuak	Plastifikazioa
Tabakoa	Enkuadernazio
Opariak	Olanak
Kukuxumusu kamisetak	Imprimatur lanak

Egunero irekia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO
JATETXEA

IGANTZI

Nafarroako jautsiera txapelketa uztailaren 6an jokatu da herrian

Usandizagaren plaka karrika aldera aldatu dute berriz ere

Oskar TXOPERENA

Lehengoan aipatu genuen Nafarroako mendi bizikleta txapelketa, jautsiera modalitatean, Igantzin jokatzeko aukerak bazeudela. Bada, aukera gauzatzen ari da poliki-poliki, eta dagoeneko Biltoki Elkarte ari da lanean baimenak lortzeko eta proba behar bezala antolatzeko. Ibilbidea ere zehaztua dute, denetara bi kilometro ingurukoa, Azkarateko harrian –Frain kaxkoan– hasi eta Herriko iturria –Latsagan– akautuz. Proba San Fermin bezperan jokatu da, uztailaren 6an, eta Nafarroaz kanpoko jende ospetsua ere etortzea espero dute antolatzaileek.

Eskolako kontuak

Aurtengo ateraldiak egin dituzte dagoeneko eskolako haur eta irakasleek. Haur Hezkuntzakoak Zarautzen egon ziren 23 eta 24an, eta bertze gaineko guziak, Mallorcan izandako 6.



ARANTZAKO GARTXINEAKOEN UTZITAKO ARGAZKIA

1920an paratua zuten Barberenean (Erramunean) Jose Maria Usandizaga konposatzailearen oroimenez burdinezko plaka. Hasiera batean, inauguratu zen eguneko argazkian ikusten ahal den bezala, karrika aldean paratu zuten. Zenbait urte geroago alde batera ematen duen etxeko paretara aldatu zuten. Orain dela egun gutti, berriz ere karrika aldean paratzea erabaki dute, lehen baino anitz bezala gainera, aisa ikusteko moduko lekuan. Idatziaren azpian garbi adierazten da plaka non egin zen: “Fundiciones de Vera, 1919”.

mailakoak kenduta, Hondarribian pasatu zuten bere egonaldia, maiatzaren 15, 16 eta 17an. Orain ekainaren 7ko Haurren Eguna prestatzen ari da Guraso Elkarte eta eguneko ekitaldien berri eman die gurasoei. Ikasturte

akabilako eskursioa, hila 14an izanen da, Xabierko Gaztelura.

Luis Mari Zelaia

Saminez hartu zuen herriak Luis Mari Zelaia eta Eltzaurdiaren heriotza. Herri kirolekin, euskararekin eta irakaskun-

tzarekin harremana izan zuen. Herri kirol taldea sortu zuenetakoa izan zen eta hori izaten zen bestetan taldeak urtero antolatzen duen erakustaldian. IKA Euskaltegi-an laguntzaile eta Toki Ona Institutuko irakasle izan zen hainbat urtez.

Herria ezagutzuz



Otsoak eta piztiak mendietan

Lehengo batean ortziraletan IKAK Xorroxin Irratian egiten duen saioan inguru honetako mendietan lehen otsoak izaten zirela aipatzen zuten.

Bada, kontu hori ederriki dokumentatua dago Igantziko Herriko Etxeko artxiboan. 1680tik aintzinerako kontu liburuetan maiz aipatzen dira otsoak, hartzak, azeriak, etabar... ehizatzeagatik egindako ordainketak, bai herritarrei eta baita kanpotik larruekin etorritakoei ere. Errate baterako, 1702ko kontuetan haxe agertzen zaigu: «*por dos crias de lobo que mató en Velzau*» eta 1708koetan, berriz: «*seguimiento de lobos en Artalecu*».

Urte batzuk lehenago, 1699an, Oningo errekan otso ehizian ibilitako jendeari emandako hamaiketako aipatzen da. Gauegun ezinezkoa iduri baldin badu ere, XIX. mendean ere ikusten ahal dira horrelako kontuak. Dagoeneko erabiltzen ez diren izenak izanik ere, garbiak dira toponimian utzitako aztarnak: Bi paraje dau de «Ossazulueta» izenekoak, bata Anddon eta bertzea Pagolan.

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313



Terraza eta plater konbinatuak

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

EKAITZA

Hostala • Kafetegia

Gelak TB eta bainuarekin

Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**



☎ 948630155

BERA

ARANTZA

Kanpaldiak eta ateraldia egin dituzte ikasturtearen azken txanpan

Hondarribia eta Zarautzen kanpaldiak eta Donostiara eskurtsioa egin zituzten eskolatik

Nerea ALTZURI

Irakaskuntzan hurbil dira udako oporrak. Baina ikasturtea gibelera utzi baino lehen, aurten ere egunpasak egin dituzte eskolako ikasle-irakasleek. Bortzerrietako adineko neska-mutilekin batera egin dira kanpaldiak. Lehen eta bigarren zikloko 11 aranztar Hondarribira joan ziren maiatzaren 20an, bilo egin eta etxera bueltatzeko. Lehen egunean eguraldia ton-to xamar baldin bazuten ere, orokorrean, hiru egunez hondartzara joan eta herri horretako xokoak ezagutzeko aukera izan zuten umeek eta irakasleek. Maiatzaren 23 eta 24an, berriz, Zarautzen izan ziren eskolako ttikienak. 9 neska-mutiko, irakasle eta gainerako bortzariar lagunak ere ongi pasatu zituzten egunak Gipuzkoako hiri horretan.

Eta itsasoarekin ez dira aspertzzen herrita-

rrak. Maiatzaren 28an Donostian pasatu zuten eguna eskolakoek. Goizean Miramongo Kutxa Espazio bisitatu eta arratsaldean patinaia egin zuten Txuri Urdinen. Eguraldia erori xamarra izanagatik, hondartzara ere joan ziren. Heldu den urtean ere egingen dituzte ateraldiak eta udako barkazioak gertu direla kontuan hartuz, ongi akautu ikasturtea!



PERTSONAIA
Mirari MAIZ GONI

Ipuin historiko lehiaketan lehen saria eskuratu du



Eskolako neska-mutikoak Zarauzko hondartzan.

Agesta pilotaria Bakersfielden

Ander Agesta, herriko pilotari afizionatuak bi aste pasatu ditu Estatu Batuetan, Bakersfield hirian. «Euskal Jaia» ospatu da xoko

honetan eta Amerikan bizi diren euskaldunek hemendik ere izan dute bisitaririk. Agesta, Mitxeo, Ariznabarreta eta Arretxe pilotariekin batera izan da han. Pilota partidak jokatu ditu eta

euskal jaiak eskaintzen dituen hainbat ekitaldien lekuko ere izan da. Gaur edo bihar bueltatuko da etxera, maiatzaren 23az geroztik han izan eta gero. Segur esperientzia ederra izan dela.

17 urteko gazteak «Errege baten itza-lean» lanarekin sari nagusia lortu berri du Ipuin Historikoen lehiaketan. Nafarroako Unibertsitateak eta Emakumearen Institutuak antolatutako lehiaketan Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleek parte hartu dute. Berako Toki Ona Institutuan 2. Batxilergoa ikasten zuten (dagoeneko akautua baitute) Mirari eta bere ikaskideek kontakizun historikoak idatzi zituzten. XV. mendean girotutako lanetan Miraririna izan da onena. Jaione Irigoien aranztak ikaskideak ere parte hartu zuten lehiaketan. Maiatzaren 10ean, arratsaldean, sari banaketa egin zen iruñean eta liburu sorta eta oroigarriak

ekarri zituen etxera herriko gazteak sari gisa. Nafarroako Blanka II. enaren egunerokoan oinarritzen da bere ipuina. Erregin bilakatzeko bere gurasoek aitzinera eramandako tratuzko ezkontza baten protagonista da. Bere atsekabea adierazten du idatzietan, ezagutu eta maitatu gabeko gizon batekin ezkontzera behartua delako.

«Laixter ohartu naiz ordea ez zuela atzera bueltarik, ez zegoela ezkondu beste irtenbiderik, baina ez hondoratzeko zerbaiti eutsi nahian edo, aurrez-aurre geundela, ezkontza gauzatzeko unean egin dudan irribarreari heldu diot, eta amaren hitzak ditut behin eta berriro, denborarekin maiteko dudala esanez (...)»



TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...



☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK



OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

KULTURA

Nafarroako Eskolarteko bertso txapelketa eskualdeko bertsolari gazteek irabazi dute

Bapateko saioan, Garazi Taberna beratarra eta Jon Elizetxe gartzaindarra txapeldun

ttipi-ttapa

Maiatzaren 17an jokatu ziren Nafarroako Eskolarteko bertso txapelketaren finalak. bertso-paper lehiaketako lanak saritzeaz gain, bapateko bertso txapelketa ere burutu zen, bai 14 urtez beheitiko kategorian, baita 14 eta 18 urte artekoan ere. Bi mailatan, eskualdera etorri ziren txapelak. Ttikien mailan, Garazi Taberna beratarra izan zen txapeldun. Bigarren postua Aitor Arbizu etxarriarrentzat izan zen eta hirugarrena Ituren go Alazne Untxalorentzat. Ondotik sailkatu ziren Aitor Arangoa (Beruete), Lur Larraza (Etxarri) eta Erkuden Mujika eta Xabi Salva-



Garazi Taberna beratarra txapela jantzi zuen 14 urte arteko kategorian. Alazne Untxalo ittundarrak argazki ttikian hirugarren postua eskuratu zuen kategorian berean.

dor barañaindarrak. 14 eta 18 urteko kategorian, berriz, Jon Elizetxe gartzaindarra izan zen txapeldun eta bigarren postua Mikel Azpirotz leitzararentzat izan zen. Iruñeko Jon Basañez izan zen hirugarren, Beñat Taberna beratarra laugarren, Oier Lakuntza iruñearra bosgarren eta Egoitz Telletxea lesakarra seigarren.

Bi lehendabiziko sailkatuek, Euskal Herriko txapelketako finalean parte hartzeko eskubidea dute. Beraz, Garazi Taberna eta Aitor Arbizu 14 urte artekoetan eta Jon Elizetxe eta Mikel Azpirotz, 14-18 urtekoetan, Mungian San Pedro bestetan egingen den saioan izanen dira.

Iruinarri modernoa plantatu dute Bustitzen bortz sunbildarrek

Lehendik erdi estalia zegoen harria altxatu dute Mendaur aldean

ttipi-ttapa

Joan den urteko urriaren 1ean iruinarri edo menhir modernoa plantatu zuten Bustitzen, Sunbillako eremuan, bortz herriarrek: Santi Espelosin, Florentino Gelbenzu, Jose Maria Elizondo, Jose txo Mitxelena (Oryo) eta Juanito Jorajuria. Beraien inzialak jarri zituzten harritzarraren gibelaldean.

Florentino Gelbenzuk TTIPITTAPARI adierazi dioenez, «harria han zen, botatua eta erdi estalia. Guk altxatu eta zuloan sartu bertzerikez genuen egin. Urriaren 1ean taladroa eta argia egiteko makina eraman eta gure inzialak jarri genituen». Nahiko polita iruditu ez, nonbait, eta artista batek eskuz landu zuen sunbil-

darrek paratutako harria, argazkian ageri den bezalaxe. Ez da koadrila honek auzoan egiten duen lehen lana. «Aitzineko urtean beheitixeago azientendako zerrakura egin genuen eta bertze urte batez Itturriotz iturria bererreraiki genuen. Hasieran keja izan zen, baina gero lan ederra egin genuela erran ziguten».



DONEZTEBE

Udal Musika Eskola berria ekainaren 16an zabalduko da

Heldu den ikasturterako matrikula kanpaina ere ireki da

ttipi-ttapa

Aitzineko alean aipatu genuen bezala, ekainaren 16an zabalduko da ofizialki Udal Musika Eskola berria. Garai batean liburutegia izan zen egoitzan moldatu dute musika eskola berria. Ekainaren 16rako musika eskolako ikasle eta ikasle ohiak bildu nahi dituzte. Goizez, txistulariak, musika banda, akordeolariak eta trikitilariak karrikaz karrika ibiliko dira. Gero Meza izanen da eta ondotik eskola bedainkatuko da. Ikasle batzuk kontzertu laburra eskainiko dute eta gero potea eta bazkaria egingen da. Musika Eskolatik erran dutenez, «*bertan ikasi edo eskolarekin harremana izan duten guziak, guraso, lagun... gonbidatuak dau-de*».

Aurrematrikula kanpaina zabalik

Bertze aldetik, ikasturte bukaera hurbiltzen ari dela eta Musika Eskolak aurrematrikula kanpaina ere hasi du. Iaz bezalaxe, lehendik ikasle direnek ez dute matrikulazioa egin beharrik. Musika eskola uzteko asmotan baldin badaude, baja eman beharko dute ekainean, faltarik gabe. Ikasle berriek, berriz, ekainaren 3tik 14ra (biak barne) eta irailaren 2tik 13ra egin beharko dute Do-



ARGAZKIA: KARMELE TOLOSA

Pianoa ikasketak eskainiko ditu heldu den urtean ere Musika Eskolak.

neztebeko udal idazkaritzan (goizez). Musika eskolatik aipamen berezia egin diete aurtengo ikasturtean musika eta mugimendua egin duten ikasleei, hurrengo ikasturterako instrumentua aukeratu behar

baitute. Heldu den ikasturterako, beraz, honako eskaintza zabala izanen du Musika Eskolak egoitza berrian: 5 eta 6 urtekoendako Musika eta mugimendua; 7 urtetik aitzinera eta helduendako musika hiz-

kuntza eta tresnei dagokienez, eskusoinua, trikitixa, pandereta, txistu, kitarra klasikoa eta elektrikoa, pianoa, saxofoia, klarinetea, tronpeta, perkusioa (bate-ria), banda eta Abesbatza (Mendi).

KIROLA

VIII. Paleta goma txapelketaren final laurdenak ekainaren 15ean jokatuko dira

Erreka elkarteak zortzigarren urtez antolatutako paleta goma txapelketa azken txanpan sartua da. Lehendabiziko fasea hameka bikotek jokatu dute, bi talde-tan banatuak. Ekainaren 15ean, 16:00etatik aitzinera jokatu-ko diren final laurdenetarako zortzi bikotek eskuratu dute txartela: A

taldean, Luisi Apezetxea-Patxi Ganboa, Ibarra-Berho, Txoperena-Txoperena eta Juanto Apezetxea eta Felipe Ganboa. B taldean, berriz, Etxegoien-Zapiain, Gazpio-Pernaute, Otegi-Otegi eta Silanes-Bakero. Finalerdiak ekainaren 22an jokatu-ko dira eta final nagusia San Pedro

FLASH

Bestetako Udal txikia osatua

Sanpedroetako udal txikia osatua da: Jon Juan-korena Iparragirre izanen da alkate eta Gor-ka Sarratea Arregi ba-ke epaile. Zinegotziak Itziar Bertiz, Ander Ber-tiz, Javier Gago, Xabin Juankorena, Jon Jubera, Maitane Larretxea, Nerea Mindegia eta Ain-hoa San Miguel izanen dira.

Karlos Garaikoetxeak

«Euskadi: La transición inacabada» bere liburuaren aurkezpena egin zuen maiatzaren 24an Doneztebeko Alkartetxean, Bortzirak eta Ma-llerrekako 50 bat lagunen aitzinean. Liburuan bere «memoria politikoak» argitaratu dituela adierazi zuen Euskal Autonomi Elkarte-ko lehendakari ohiak. Euskal abertzaletasunaren sormenetik gaur egun-go politikara izan diren pentsamendu aldaketak argitaratu ematen ditu Garaikoetxeak. Orain dela 2 urte, Planeta argitaletxeak bere ibilbide politikoan oinarritutako liburua idaztea proposatu zion Garaikoetxe-ari eta honek pausua ematea erabaki zuen.



San Pedro egunean banatuko dira aurtien ere sariak.

egunean, arratsaldeko 18:00etatik aitzinera.

BERTIZARANA

Bertizaranako Eguna ospatu zen Narbarten ekainaren lehenean

Bazkariaren ondotik sokatira saioa egin zuten haranako gazteek

ttiipi-ttapa

Joan den larunbatean, ekainaren 1ean, ospatu zen Narbarten Bertizaranako Eguna. Joan den utean hasi zen egun hau ospatzen eta aurten segida eman diote Bertizaranako gazteek, Udalararen, Legasa eta Narbarten kontzejuen, BKZ eta Malerreka Mankomunitatearen laguntzaz.

Eguna hasteko, goizean suziriak eta diana izan zen Legasako txistulariekin. Gero, gosaria izan zuten. Meza Nagusiaren aitzinetik, futbito partidua jokatu zen eta piraguak izan ziren errekan. Ondotik, herri kirolak eta haranako bazkaria egin zen, Bitxor Elizagoien eta Manolo Arozena bertsolariekin. Arratsaldean ha-



Joan den urteko Bertizaranako Eguneko irudian ageri denez, gazte aunitz biltzen da haranako bazkarian. Joan den urtean Legasan bezalaxe, aurten Narbarten egin dute.

ranako gazteen arteko sokatira saioa egin zen eta gero dantzaldia Xabier Ariztiaren eskutik.

Herriko plazan egin zen afariaren ondotik, eta Bertizaranako bizilagunak elkartu dituen egu-

na behar bezala akitzeko, gauerditik aitzin gaurpasa izan zen Jalisko Band taldearekin.

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA TB

72.116 bisitari izan zituen iaz Bertizko Parkeak

Bertizko NaturParkeak 72.116 bisitari izan zituen iaz. Gisa horretara, Nafarroako hiru parkeetatik (Urbasa-Andia eta Bardeak dira bertze biak) bisitatuena izan zen. Normala denez, abuztua izan zen bisitari gehien izan zituen hilabetea (10.970 bisitari). Ekainean 9.969 bisitari izan ziren, apirilean 9.062, uztailan 8.990, urrian 7.393 eta maiatzean 6.959. Pixko bat beheiti eginenez, datu hauek mantendu egin ziren azaroan (5.009), irailean (4.692), martxoan (3.627) eta abenduan (2.816) eta nabarmenago jautsi egin ziren abenduan (1.658) eta utarrilean (971).

BEINTZAko OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
© 948 630 763

PIKABEA *pinturak*
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

I CHE
MALDAERREKA, S.L.
FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA
Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian eta etxean prezio guzietan
Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara
© 948 637404
© 900 704704

ITUREN

56.696 euroko aurrekontua du Herriko Ostata moldatzeak

Maiatzaren 27an hasi ziren bi hilabete iraunen duten lanak

Iban ISASI

Iturengo Herriko ostata moldatzen hasi zen joan den astean Udala. Maiatzaren 27an, herritarrek auzolanean hasi ziren barrenetik hustutzen eta bi egunez izan dira borondatez aritu diren hamar bat langileak. Maiatzaren 29tik aitzinera, berriz, igeltero profesionalak hasi dira moldaketa lanean. Lanen aurrekontua 56.696 eurotik goitikoa da, baina auzolanean egindako lana kontuan hartuz, zerbait jautsiko dela uste dute Herriko Etxean. Maiatzaren 31n Iturengo Udalak egin zuen batzarrean, behin moldatu ondotik herriko ostata errentan hartzeko enkante edo susta deialdia aterako



IBAN ISASI

Mendaurko baseliza ttikia gelditu zen Trinidad Egunean.

da. Uda akabailarako berriz ere herriko ostata irekia izatea espero da, igeltseroek, lanak ongi joanez gero bi hilabetetan akituko dute-

la errana baitute. Dena den, kontu segurua da herriko bestak Herriko ostaturik gabe igaroko direla aurtengoan Ituren.

Mendi ibilaldia Aizkolegira

Ekainaren 16an Aizkolegira mendi ibilaldia antolatu du Ibintza kultur taldeak.

Trinidad eguna

Jende ugari hurbildu zen maiatzaren 27an Mendaurko Trinidad egunera. Eguerdian arte aritu zen goratzen jendea Mendaurko baselizara, 9etatok eta 10etako emandako mezetan baselizak gainezka egin zuen, eta aunitzek ataritik entzun behar izan zituzten. Berriz batzuk desioa eskatu zuten, baselizari hiru buelta emanez eta teilatura harria botaz. Ibintzak antolatutako bazkarirako 70 lagunek goiti emana zuten izena, eta bazkal ondotik Trikidantz taldearen doinuak aditu ahal izan ziren. Eguraldia nahasi xamarra zebilen, eta euri zaparradaren azpian bildu behar izan zituzten bazkarirako eramandako trasteak eta musika aparailuak. Arratsaldean dantzaldia izan zen plazan Gaubela taldearekin.

ZUBIETA

Dardo txapelketan parte hartuko du Herriko Ostatu taldeak

Larunbatean jokatu da Miranda de Ebron

Leire ORTUOSTE

Aurreko bi urteetan Burgosen eta Donostian egin zuten bezala, aurtan Miranda de Ebron egingen den dardo txapelketan parte hartuko dute Herriko Ostata taldekoek. Txapelketak, berez, hiru egun iraungo ditu, baina zubitarrek

ekainaren 8an, 9:30etatik aurrera ariko dira. Hamar herritar (8 mutil eta 2 neska) joan behar dira eta bost kategoriatan banatzen dira: taldeka, bakarka, mistoa, emakumeak... Komunitate arteko txapelketa honen ondotik Espainiako txapelketa jokatu da.

Bestaberri

Ekainaren 2an Bestaberri eguna ospatu zen. Arratsaldean berrendua izan zen herritar guzientzako eta ondoren 22:00ak ate dantzaldia izan zuten.

Bestalde, eskola inguruan umeentzako parkea jarri behar dute.



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

GOIZUETA

Baserritako bideak konpontzeko 60.000 euro erabiliko ditu Udalak

Sortzen elkarteko pilota txapelketaren partidak jokatu ziren herrian

Esteban AROTZENA

Hainbat baserriko bideen punturik txarrenak konpontzeko 60.000 euro (10 milioi pezeta) erabiliko ditu Udalak dagoeneko martxan dagoen planean. Kontutan izan behar da dirutza hau guztia materialerako dela, eskulana auzolanean egiten baita. Jendea erantzun ederra ematen ari omen da gainera.

Eskolako haurren garraioak eta anbulantziak arazoak dituzten zenbait lekuri eman zaio lehenentasuna inbertsio hau egiteko orduan, Juanan txokotik Kalekobordara, Domiñazpi-Domiñara eta Alkasoko iturritik Mintegira bitarteko pistei esate baterako. Hauetaz gain, ongi ez



ARGAZKIAK: ESTEBAN AROTZENA

Argazkiko zazpi neska-mutiko hauek izan ziren protagonistak maiatzaren 19ko lehen jaunartzearen ospakizunean.


dauden gainerako bide guzietan ere errepasoa emanen omen zaie.

Sortzen Pilota

Sortzen, Nafarroako Gu-

raso Elkarteen koordinadorak 8-12 urteko pilotarientzat urtero antolatzen duen txapelketaren jardunaldi bat herrian burutu zen maiat-

zaren 25ean. Partidak goizean jokatu ziren eta herriko eskolako ordezkari guztiak garaile ateratu ziren gainera. Festa borobila beraz.



Argindarraren kableak lurpetik igarotzen ari dira Iberdrolakoak azken asteotan. Udalaren nahia herriko guztiak desagertzea baldin bada ere, oraingoz plazan, Kale Nagusian eta beste hainbat leku jakinetan bakarrik egingen omen dira lan hauek, «aurrekontuak horrelaxe agintzen duelako». Obretako zinegotziak esan zigunez, azpiegitura guztia herriaren gain doa, kableak paritetatik kendu eta lur azpitik igaro besterik egiten ez duelarik Iberdrolak.

ARESO

Bikote gazteak irabazi du Pake-Tokiko mus txapelketa

Iker Barandalla eta Xabi Gereño txapeldun

Juana Mari SAIZAR

XXIII. mus txapelketako finala maiatzaren 18an Pake-Toki elkartean ospatu zen. Txapel-dunak Iker Barandarrain eta Xabi Gereño gazteak izan ziren. Txapeldunordeak Txomin Etxarri eta Juan Gabilondo. Txapelketa honetan 13 bikotek hartu dute par-

te eta gaztetxo hauen lehenengo urtea da. Finala ondoren, afaria eta sari banaketa egin zen.

Langabetuak lanean

Udalak beste urteetan egin duen bezala, langabezian dauden bi langile kontratatu ditu hiru hilabetez herriko la-

netan aritzeko. Dagoeneko hasi dira lanean eta kanposantua eta inguruak herriko kaleekin batera garbitzen ari dira.

40 argazki

«Kanpo Zorraren Abolizioa, ez aurpegia itzuli, guk aurpegia ema-



ARGAZKIAK: JUANA MARI

Mus txapeldun gazteak.

ten diogu» lelopean, 40 argazki bildu ziren maiatzaren 19an, meza ondoren elizatarian.



Maitane Gereño Igarondo elkarteko igerialaria, udako Espainiako txapelketan parte hartuko du Bartzelonan uztailean. Maitaneren marka ehun metro librean, 1' 04" 98 da, guxtienekoa lortuz.

LEITZA

XXIV. Kultur Astearen balantze bikaina egin behar da orohar

Kanpo zorraren abolizioa eskatuz ia 400 argazki bildu dira herrian

Mikel ILLARREGI

Amaitu da aurtengo Kultur astea eta ohikoa izaten da gutxi gora-beherako iritzia eman, hurrengo arte eta kitto. Dena den, zehatza ez bada ere, balantze gisako zerbaite aipa daiteke. Helduentzat eskainitako saio gehienek "epaia" partaide izan diren pertsonen eta Kultur taldearen kideek saioaren bukaeran bildutakoaren iritzi laburpena izan nahi du. Euskal selekzioaren aldeko mahaingurua; hutsa, jenderik ez. "Oreka Tx" txalaparta; saio orekatu eta beroa. «Ehaziri topaketa»; ikusgarria. "Kuadrilen arteko Herri kirolak"; arrakastatsua. "Munduari itzulua hamazazpi urtetan"; mundiala. "Marcel magoa"; magikoa, pena jende heldu gehiegi ez animatzea. "Irakurriz gozatu"; entzunez gozatu. "Kuba bizkietaz"; iluna, ez zuen Kubako kolorea eta erritmoa transmititu. "Sex-une antzerkia"; bikaina eta ikasteko modukoa. "Eskulangintza erakusketa"; atergune eta euri jasan arteko ikusgarritasuna. "Erakusketak"; gozagari.

Laburregi eta ez oso zehatza agian, bakoitzak xehetasun gehiago behar baitu, baina dena orohar bikain. Bikain ere, hau guztia antolatzen, eta antolaketan lanetan lagundu duten guztiak, baita diru-



laguntza eskaini dutenak. Entzule, ikusle edota partaide moduan aurtengoan, azkeneko urteetan baino handiagoa izan bada jendearen erantzuna, ea heldu den urtean XXV. urtean hain zuzen, topea jotzen den.

Kultur erabilera Maxurrenean

Azkeneko alean, Parlamentuan Udalarren agerraldia aipatzen genuen. Ondoren Laguna kontselariarena etorri da eta esperantzaren bat ikusten bazen aurrekoan, honetan garbi utzi du etxe honen erabilera eta lehentasuna zeri eman. Udalak eginiko errekursoaren esperotan, haserako sinatzailen taldeetako ordezkariak kultur erabilera gauzatzea pentsatu dute. Horretarako txandak, taldeek, hauen kiodek edota herriatarrek bat bestearen atzetik erakusketa, hitzaldi, dia-



IDOIA ZABALETA

Plazak gainezka egin du Kultur Asteko hainbat ekitalditan. Tartean, Ehaziri Lan Zaleen Topaketa ikusgarria izan zen.

positiba emanaldi, ikastaro eta horrelakoak antolatzea pentsatu dute. Horretarako giltza eskatuko dute eta bidezkoa ikusten bada, laster batean hauen berri kaleratuko dute eta jendeak parte har dezan eskatzen dute.

Bigarrena leitzarra

Duela aste gutxi Nafarroako eskolarteko bat

bateko bertso txapelketak jokatu da. Finalera iritsita, leitzako Mikel Azpirozek bigarren postua lortu du, Jon Elizetxeren atzetik. Lehenengoak 77,5 puntu lortu zituen eta 77,1 bigarrenak. Txapelketa honetan 14-18 urte bitarteko Nafarroako gazteek parte hartzen dute eta orain Euskal Herriko finala jokatu da Sanpedrotan Bizkaiko Mungian.

FLASH

Ekainaren 9an Lekeitiora

Urtero bezala, UEMAk, Udalerri euskaldunen eguna antolatu du. Aurten Bizkaiko Lekeitio ospatuko da. Herri honek, Oriorekin batera, UEMA sartzeko erabakia hartu zuten otsailan. Bi herri hauekin 47 udalek osatzen dute mankomunitatea. Hamaika urte igaro dira lehen UEMA eguna ospatu zenetik eta urte hauetan lortutako emaitzak handiak izan dira. Besteak beste administrazioan euskaraz funtziona daitekeela, euskara lan hizkuntza izan daitekeela frogatu ahal izan da.

Mendi taldea

Ekainaren 16an, Leiza-Sara-Bermeo elkarkidetzaren barnean, mendi irteera antolatu da Aralarrean, Tuturrera hain zuzen. Ibilaldiaren ondoren nahi duenarentzat herrian lagun arteko bazkaria antolatu da 10 eurotan. Bestaldetik Mendibil mendi taldeak mendirako materiala erosi du bazkideek erabiltzeko. Irailean eskalada ikastaroa ere antolatu da Nafarroako Federazioarekin batera. Ikastaro hau bi asteburutan luzatuko da.

Dirulaguntza

Urtero udaldeen egiten den Udako Euskal Unibertsitatean parte hartu behar duenak, matrikulazio gastuetarako udalak onarturiko dirulaguntza jaso dezake.

Kontzertua

Aralar musika taldeak ekainaren 9rako musika kontzertua antolatu du herriko zineman, 12:00etan.

BAZTAN

Suteak zaintzeko begiralekuak paratzea eskatu du Junta Generalak

Irurita eta Elizondo arteko errepidea ez dute moldatuko

Rakel GOÑI

Nafarroa osoan, suteak zaintzeko hamazazpi begiraleku paratuko dira aurtengo uztailaren 1etik 2003ko maiatzaren 31ra. Horietatik bakar bat ere ez da Baztanen jarriko. Hedaduran Nafarroako herririk handiena dela eta hemen gertatzen diren suteen kopurua eta garrantzia kontuan hartuz, bi oihan begiraleku Baztanen eta inguruko herrietan ere paratzea eskatu du Junta Generalak. Juntakideek beraiei arrenkura azaldu zuten afera honen inguruan. Gobernuaren beraren datuen arabera, iaz Nafarroa osoan baino eremu handiagoa erre zen eskualdean otsaileko hiru egunetan.

Ana Mari Marin Elizondoko alkateak egin zuen Juntak onartutako proposamena. Neguan larreak kontrolik gabe erretzearen ondorio penamangarriak gogoratu zituen, prebentzio neurriak hartu arren. Be-



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Lekaroztik Etxerriko bidegurutzeko zubian barna N-121-B errepidera sartzen diren ibilgailuek Elizondo alderako norabidea hartu behar dute nahitahienez hemendik aitzinera. Sortzen den arriskuarengatik, ezin izanen dute Gartzain edo Irurita aldera hartu, seinale berriek erakusten duten gisara.

giralekuak jartzea, neurri osagarri interesgarria dela uste dute Juntakideek.

IRURITA-ELIZONDO ERREPIDEA

Mendekoste eguneko Juntan bertzelako gairik ere ukitu zen. Ho-

nela, Nafarroako Errepide Zainketarako Zerbitzuaren idatzi bat irakurri zen. Idatziak zioenez, N-121-B errepidean, Irurita eta Elizondo artean ez dago moldaketa lanik egiteko in-tentziorik. Jakina denez, oinezkoendako arrisku-

tsua da zati hau, ez baita bidebazterrik eta zuhaitz handiak daudelakoz errepidearen bi aldetara. Idatzian ageri denez, zati osoaren ikerketa egin da, baina moldaketa egitea «ekonomikoki ez da bideragarria».



PERTSONAIA

Xotero ETXANDI

Hiru urte espetxean igaro eta libratu dute arraioztarra

1999ko uztailaren 4an atxilotu zuten Xotero Etxandi arraioztarra, talde armatuko kideei muga igarotzeko laguntza ematearen akusaziopean. Beraz, kasik hiru urte eman ditu espetxean, maiatzaren 26an libratu baitzuten. Goizeko 9:45etan aterazen Iruñeko kartzelatetik eta kanpoan esperoan zituen familia-koak, lagunak eta Batasunako parlamentariak. Espetxe atarian aureskua dantzatu eta lore sorta eman zioten Xoterori. Egun berean, eguerdian, Arraiozko zubian ongietorria eskaini zitzaion, bertaratutakoen txalo artean. Baina ez da hori izan herritarrek egin dioten harrera bakarra. Joan den igandean, ekainaren 2an, ongietorri bazkaria egin dute Arraiozko pilotalekuan. Herri-tar eta lagunak harre-ra bihotzez eskertu zuten Xoterok.



BAZTAN

ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsalde 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

BAZTAN

Ustarroz erremontista ohia omendu zuten Pilotaren Egunean

Oronozen ospatu zen maiatzaren 25ean

Rakel GOÑI

Maiatzaren 25ean egin zen Oronoz-Mugairin Pilotaren Eguna. Aitzakia horrekin Jesus Mari Ustarroz, herriko semea eta garai batean erremontelaria izandakoa omendu zuten. Ustarroz zazpi hilabetez Madrilgo Recoletos pilotaleku famatuan aritu zen, baina etxeko okindegian lana pilaka zela eta, utzi egin behar izan zuen Madrilgo abentura. Dena den, Iruñeko Euskal jai pilotalekuan ere aritu zen erremontean. Segundo Anaia pilotalekuan, izen bereko lehendabiziko pala txapelketaren finala jokatu zen. Karmelo Berho eta Iñigo Zelaia ta suertatu ziren txapeladun, finalean Carlos Goñi eta Mikel Etxeba-



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Jesus Mari Ustarroz omendua, emaztea eta pala txapelketako finalestekin.

rriri irabazi ondotik. Afizionatu mailako zesta punta eta esku pilota partidak ere jokatu ziren. Ondotik, Oronozko herriak eta Balleko Udalak oroigarriak eman zizkioten Ustarrozi. Honek esker onez jaso zituen

sariak eta beretzat bizitzako egunik pozgarriena izan zela adierazi zuen. Cesar Krutxaga Osasunako jokalaria ere oroigarria eman zion Oronozko alkateak, lehen mailako ligan minutu gehien jokatu di-

tuen jokalaria izan delakoz. Pilota partidu eta omenaldien ondotik, bazkaria izan zuten Urdainen 155 bat lagunek eta eguna eta gaua luze joan zen, Florentino Goñi alkateak erran digunez.

FLASH

Etxeko sutarako egurra

Ekainaren 13tik abuztuaren 31 artio zabalik da Baztango Udalean etxeko sutarako egur lotteak eskatzeko epea. Epe honetatik kanpo ez dela eskaerarik onartuko jakinarazi du Udalak.

Web orririk ez subentziorik ez

Balleko Udalak, hilabeteke epean 6.526,25 euro itzuli beharko dizkio Nafarroako Gobernuako komertzio eta Turismo Zuzendaritza Nagusiarri. Erakunde honek Internet-en udalaren web orria egiteko eman zuen dirulaguntza iaz, baina egin ez denez, dirulaguntza bueltatzea eskatu du.

1.300 amorrain hil zituen Oronozen oinazturak

Nafarroako Gobernuak Oronozen duen arrain haztegia 1.300 amorrain hil zituen oinaztura batek maiatzaren 22an. Nonbait, oinaztura pinu baten sustraie-tik sartu zen amorrainak zeuden urtegia.

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
☎ 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

G U T N T I T L E
I C H E
G E S T I N E S F I N E S E L N T E, S. L.

TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52 • ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua tanatorioan
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704

MENDIALDE Jatetxea

AMAIUR • ☎ 948453060

Carlos Garaikoetxea Etxenike

abokatua
Aseguru orokorrak

☎ 948581468 • 948580433

Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • ELBETE

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
☎ 948 581807 • 948 581853

BAZTAN

Erreka Jaime Urrutia karrikaren egonkortasunean eragiten ari da

Elizondoko Zatonea etxearen inguruan arrailak ageri dira zolean

Rakel GOÑI

Baztan erreka-aren urak Elizondoko Jaime Urrutia karrikaren egonkortasunari eragiten ari dira, edo hala uste dute behinpein bizilagunek. Duela 20 urte parreta erori zen, Udalak berria eraiki nahi du, baina Confederación Hidrográfica del Norte erakundeak ez dio baime-nik eman. Zatonea etxe-aren parean dago arrail-dutako karrika zatia. Parreta erori zenetik, urak zuzenean jotzen du karrikaren oinarria. Udalak 35.100 euroko aurrekontua duen proiektua egin du afera moldatzeko, baina baime-nik ez du oraingo.

ERREKAKO URAREN KALITATEA NEURTZEKO ESTAZIOA ARRAIOZEN

Nafarroako Gober-nuko Ingurumen Kalita-terako Zerbitzuak Baztan erreka-ko uren kalitate-arenean neurtzeko estazio automatikoa jarriko du Arraiozen. N-121-B errepidetik Ugaldea ba-



ARGAZKIA: RAKEL GOÑI

Amairuko errota zaharberritzeko eta moldatzeko proiektua Maite Apeztegia Elso arkitektuak egingen du, 12.458 eurotan. Horrela erabaki zen Balleko Uda-laren Gobernu Batzordean. Nafarroako Gobernuak 11.212 euroko dirula-guntza emanen du. Proiektua Zubietan edo Zugarramurdin egindakoen gi-sakoa da, baina kasu honetan landa etxe gisa irekitzea ere aurrikusia dago. Errota zaharberritzeko 210.355 euroko inbertsioa egingen da eta %85a Nafa-roako Gobernuak ordainduko du.

serrira doan zubiaren ondoan jarriko dute 10 metro koadro eta bi me-tro terdiko altuera iza-ren dituen kabina.

Literatur mintzaldiak

Baztango Udalak eta

Liburutegi Publikoak eta Nafar Ateneoak antola-tutako literatur mintzal-diak gan den ortzirale-an hasi ziren Arizkune-nean Kultur Etxean. Toti Martinez de Lezea kon-dairaren sugestioari bu-ruz aritu zen. Ortzirale-

netan, ekainak 7, azken urteotan Baztanen bizi den Miguel Sanchez Os-tiz arik da, 19:30etatik aitzinera. Hurrengo or-tziralean, ekainak 14, Jose Antonio Peralesek «Mugaren sedukzioa» gaia izanen du solasgai.

FLASH

Arizkungo eskolako haur-jolasak

Arizkungo guraso el-karteak egindako eska-eren artean haurrenda-ko jolas parkea jartzea zegoen. Azkenean ko-lunpioak, txirista eta an-tzekoak jarri dituzte es-kolako jolasparkean. Orain lurreko hartxin-txarra kendu eta hau-rrek minik har ez deza-ten bertze materialen bat botatzea egoki li-tzateke.

Oteizaren eskultura

Elizondoko Santiago eli-zaren lorategian aspal-ditik Jorge Oteizaren es-kultura dago. Berriki ar-te idatziz eta marrazkiz betea zegoen eta gar-bitu egin dute. Orain be-re jatorrizko kolorea, bel-tza, berreskuratu du.

Federazio Kopa

Baztan futbol taldeak ezin izan zuen Federa-zio koparen finalera ai-legatu. Finalaurrekoe-tan Cadreitararen aurka aritu zen, joaneko par-tiduan 1 eta 0 galdu zuen Baztanek eta itzuleran 4-3 irabazi arren, Ka-dreitakoak sailkatu zi-ren finalerako. Giltxaur-diko zaletuak ez ziren batere kontent gelditu epailearen lanarekin, marra pasatu zuen go-la eman ez zuelako.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



BAZTAN FUNERARIA

Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO

• ☎ 948 580373 • 608 776176

SARA

675 mendizalek eman zuten izena Sarako bederatzigarren Itzulian

Beti Gazteko 55 lagunek krakada izan zuten Pullman jatetxean

Aña Mari eta Fred

Axuria elkarteak bi urtetik behin antolatzen duen herriko itzulia Mendekostez, denbora ederrarekin, iragan da. Aurtengoan ere, partehartzaileen kopurua handitu da, 675 presunek izena eman dute. Baina antolatzaileen arabera, batzuk abiatze tenoreak ez dituzte errespetatu eta bertze batzuk Lizarrietan hasi dira «itzulia» egiten. Hauek seguraski Larrun eta Iban-teliren beldur zirela. Denetara 750 eta 800 artean izan dira oinezkoak eta 587 ailegatu direnak plazaraino itzuli osoa eginez. Heltzeak arratsaldeko 16:00ak eta 20:00ak artean izan behar ziren, baina lehenak 14:00etako ailegatu ziren eta azkenekoak 21:30etan. Azken hauek «Saran beti astian» ibiltzen garela egiaztatu dute. Ibilaldia hesten duten antolatzaileak bertze urteekin konparatuz, oren bat lehenago ailegatu dira Larrunera eta Lizarrietara. Beraz jendea gero eta prestatuagoa ematen da. Partehartzaileen gehiengoak kostaldetik etorria zen: 225 lagun, barnekaldetik 98. 115 saratarrek izena eman zuten eta 150 presuna Euskadi eta Nafarroatik eta 87 bertze herrialdeetatik etorriak. Axuria Euskal Mendizale Federakuntzan sartuz, Hego Euskal Herriko jen-



ARGAZKIAK: JEAN PIERRE LEMOINE

Beti Gazteko lagunak Pullman jatetxeko sartzean.

de kopuruak gorakada handia egin du; aurtun 150 lagun, orain dela bi urte baino hiru aldiz gehiago. Egun eder huen ondotik, mendizale frango bildu zen iluntzean polikiroldegian Axuriak prestatutako afariatz gozatzeko.

Beti Gazte ezker eta eskuin

Maiatzaren 15ean, Beti Gazteko 55 presuna bildu ziren Le Pullman jatetxean. Azkeneko hamar urtetan bezala aurtun ere Beti Gazteko lagun guztiak krakada egitera gomitatuak ziren. Baina aldi huntan ainitzek ezin izan dute joan, denbora ederra baitzen eta belarrak egiteko sasoina denez... Beti Gazte, bai lanean aritzeko ere. Krakadaren ondotik, musika adi-

tu zen San Inazio alde hartan eta seguraski batzuk dantzan ere aritu.

Ondoko ateraldia, Zugarramurdi aldean izanen dute erearoren 16an, bazkaria Armua jatetxean egingen dute. Prezioa 18 euro eta izenak emateko deitu behar duzue: Jeannot Elizagoiien, 0559542125; Anita Suhit 0559542021 edota Yvonne Aspirot, 0559542700.

Errugbi taldeak 30 urte

Ekainaren 16an, igandez, Sarako Izarra errugbi taldearen 30. urtebetetzea ospatuko da. Besta eguna goizeko 10etan hasiko da Aniamaniako zelaian iragatzen den adiskidetasunaren partidarekin. Ondotik Zikiroa zerbitzatua izanen da eguerditarik

goiti. Zorionak taldeko jokalaria, entrenatzaile, zuzendari, laguntzaile eta jarraitzaile diren eta izan diren guztieri!

Petanka txapelketa

Maiatzaren 25ean, Sarako lehen petanka txapelketa iragan da Aniamaniako zelaian. Denetan 24 talde lehiatu dira arratsalde guzian. Azkenean, Kako Goietxe eta Manu Endarra atera dira txapeldun, Christophe Pradines eta Nicolas Jorajuriaren aurka finala irabazi ondoren. Antolatzaileek sari ainitz pentsatuak zituzten partehartzaileentzat eta egunaren ongi buzuratzeko Lastiriren etxean afaltzeko parada izan da, ondotik Gaztetxean antolatu bestan parte hartu aitzin.

Geroa Bizirik elkartearen aurkezpena

Iragan maiatzaren 25ean «Geroa bizirik» elkartearen aurkezpen besta egin da Gaztetxean. Gaualdia giro ezin hobean pasatu da, bereziki 80. hamarkadako musika entzungai izan delarik. Elkarte partaideen erranetan xedea euskal nortasunaren alde lan egitea izanen da, ingurumen kulturalari eta ekonomikoari, bai eta gizarteari kasu eginez. Bertzalde, helburua herri mailan proiektu demokratiko baten sortzeko lan egin nahi duten Sarako aber-tzale guztiak biltzea da.

Dagoeneko lan ardatz batzuetan finkatuak izan dira, hala nola hirigintza, kultura, ingurumenaren zainketa, eta laborantza. Elkar-te berriaren bulegoa ondoko pertsonen osatzen dute: Patricia Sahastume (lehendakaria), Mirentxu Iriarte (idazkaria) eta Mixel Gerendia (diruzaina).

Interesatuak direnentzat, bilkurak antolatuak dira hilabete guziz Gaztetxean.

ttipi-ttapa Lastiryen

Ondoko ttipi-ttapa Lastiry ostatuan esku-ratzen ahalko duzue, Herriko Etxeko Edantegiko ateak erearoren 16tik 26a arte hertsia izanen baitira.

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA



CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL. 0559542519

AZKAIN

Lesakarekin anaitasun egunak egingen dira bi herrietan

Frederic Lafitti ongi-etorria egingen zaio ekainaren 8an

Ihintza, Angela eta Eneko

Orai arte Azkain eta Lesaka lotuak baziren ere, ez zen oraino deus ofizialik antolatua izan bi herrien arteko anaitasuna ospatzeko.

Aurten bi herriek ekintza berezi batzu antolatu dituzte lotura horren azkartzeko asmoarekin. Lesakako udalak anaitasunaren egunak egingen ditu ekainaren 29 eta 30ean. Erakusketa bat aurkeztua izanen da emazte artista zonbaitzuren obra batzuen inguruan. Azkaindarrek gomita berezia errezebitu dute 30 eko egunarentzat. Klakako musikariak, tindatzaileak, argazkiegileak, eta herriko txarranga ofizialki errezebituak izanen dira. Egun horitan animazio ugari eta bazkari bat izanen da.

Azkainen, Aboztuaren 18an antolatua izanen da egun berezi bat lesakarekin. Bi herrietako abesbatzek elgarrekin kantatuko dute mezan. Lesakako triki-



Zortzi eta bederatzi urteko berrogoi haurrek beren lehen komunionea egin dute maiatzaren 26an.

tilariak etorriko dira, bazkaria eta pilota partidak ere izanen dira.

Frederic Lafitti ongi etorria egingen zaio ekainaren 8an

Sagarmatha espediziokideak ekainaren 1ean arribatuko dira

Baionako geltokirat. Azkaindar batzuek ongi etorri berezia egin nahi diote Frédéric Lafitti Everest gailurra gainditu baitu maiatzaren 17an. Herriar guziak gomitatuak dira ekainaren 8an larunbatarekin herriko plazan biltzeko eta aperitifaren egiteko.

Musikaren besta

